

GETXO

— BIZKAIA —

Kostako herri hau Bizkaiko hiriburuaren iparraldean dago, 17 km-ra, Bilboko itsasadarraren eskualdean. Herriaren jatorrizko nukleoa muino txiki batean dago, eta, bertan, Andra Maria eliza dago gaur egun.

Egile batzuen esanetan, hala nola J. R. de Iturriza, P. P. Astarloa eta Andrés de Poza, Getxo topónimoak "altueratxo" esan nahi du, eta euskal hitzetatik eta inguruko txikigarrietatik aterata dago. Hitz horrek herriaren kokapenaren berri emango luke.

Getxo elizatea Martiartu familiaren orubean sortu zen, Lope García de Salazarrekin *Bienandanzas e Fortunas* lanean esaten duenez. Egile horrek Andra María monasterioa aipatzen du. Otxoa Ortiz, García de Basurtoren ondorengoa zen Fortún Sánchez de Getxo noblearen iloba, tenpluaren eraikuntzaren bultzatzaile nagusia izan zen, eta, hain zuzen ere, tenplu hori da herriaren Erdi Aroko jatorriaren lekukotza bakarra. Tenpluaren inguruan herria garatu zen.

Esta localidad costera está situada 17 km al norte de la capital vizcaína, en la margen derecha de la ría de Bilbao. El núcleo original de esta población se localiza en una pequeña loma, donde hoy se alza la iglesia parroquial de Santa María.

Algunos autores, como J. R. de Iturriza, P. P. Astarloa y Andrés de Poza, han interpretado el topónimo Getxo como "alturita", procedente de vocablos vascos y diminutivos comarcales, respondiendo así a su ubicación.

La anteiglesia de Getxo se fundó sobre el solar de la familia Martiartu, según indica Lope García de Salazar en su obra *Bienandanzas e Fortunas*, que menciona la existencia del monasterio de Santa María. Otxoa Ortiz, un nieto del noble Fortún Sánchez de Getxo, descendiente de García de Basurto, fue el principal impulsor de la construcción de este templo, único testimonio del origen medieval de esta localidad. Alrededor de él, fue desarrollándose el pueblo.

Andra Maria eliza / Iglesia de Santa María

GAUR EGUN IKUS dezakegungo eraikina 1789an egindako berreraikitze handi baten emaitza da. Erdi Arotik iparraldeko horman irekitako bi bao eta bi harburu simple iritsi zaizkigu. Lehenengo leihoa erdi puntuko arku batek osatzen du, bozelez dago apainduta, eta profil alakatuko zimazio batean oinarritzen da. Beste leihoa handiagoa da, eta erdi puntuko arkua du, arkuari apaindu gabeko kapitelak dituzten bi zutabek eta zimazio alakatuek eusten diote. Pieza horiek mutxardaz daude lantuta, eta, horren ondorioz, badirudi baoa Aro Modernoan berritu edo berreraiki zela. Barrualdean, baoak bi zutabe ditu, berriz aprobetxatutako kapitel erromanikoetan burututa. Bietako bat angeluan kokatutako buru edo maskara batekin dago apainduta, eta horren ahotik alboetan elkar gurutzatzen duten zintak edo zurtoinak ateratzen dira. Bestean, lauineko bat ageri da motibo begetalen artean. Bi kapitelesen apaingurutzea Zumetxagako San Migelen leihotako kapiteletan ere ageri da. Hori dela eta, egileren batek, hala nola Agustín Gómez Gómezek, bi tenpluetan eskultore berberak egon zirela esan izan du.

EL EDIFICIO que hoy podemos contemplar es fruto de una amplia reedificación llevada a cabo en 1789. De época medieval sólo se han conservado dos vanos abiertos en el muro norte, así como dos sencillos canes. La primera de estas ventanas está formada por un arco de medio punto adornado con bocel que descansa sobre un cimacio de perfil biselado. La otra ventana, de mayores dimensiones, consta de un arco de medio punto soportado por dos columnas de capiteles sin decorar y cimacios biselados. La factura de estas piezas con el uso de bujarda parece evidenciar una restauración o recomposición del vano en época moderna. En el interior, este vano presenta dos columnas coronadas por sendos capiteles románicos reaprovechados. Uno de ellos se decora con una cabeza o máscara colocada en el ángulo, de cuya boca salen unas cintas o tallos que se entrelazan a los lados. El otro muestra a un cuadrúpedo entre motivos vegetales. La decoración de ambos capiteles se repite en los que decoran la ventana de San Miguel de Zumetxaga, aspecto que ha dado pie para que algún autor, como Agustín Gómez Gó-



Iparraldeko horma

Muro norte



Iparraldeko leiboaren
barrualdeko kapitelak

Capiteles interiores de
la ventana norte

Hirugarren kapitel erromanikoa, kiribilen bi ilaraz apaindua, sakristian sartzeko atean berrerabili zen.

Testua: JCE/MLAI - Argazkiak: JCE/JJLO

mez, considere la participación de los mismos escultores en ambos templos.

Un tercer capitel románico, adornado con dos filas de espirales, fue reutilizado en la puerta de acceso a la sacristía.

Texto: JCE/MLAI - Fotos: JCE/JJLO

Bibliografía / Bibliografía

BARRIO LOZA, J. A., 1979, pp. 81-82; BASAS, M., 1982, p. 36; BEASCOECHEA GANGOITI, J. M., 1992; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997a, II, pp. 904, 909-910; LÓPEZ DOMECH, R., 1985, p. 48; ZABALA, C. M. y ORTEGA OLIVARES, J., 1990.